

Ariketa hauek Ikasbileko 1870001 atazan aurkituko dituzu

Audioaren erreferentzia: JJ-19 Grease I

Mailak: B2-C1

Funtzioa: iritzia eman, balorazioak egin, entzundakoa birkontatu

Adierazpide linguistikoak: lexikoa (*mozorro, inauteri, jantzi, festa...*), zer/nola mozarrotu, -tzekotan, balorazioak egiteko (*Izan liteke..., tamalez..., iruditzen zait, ez nuke...*), eskerrak *-(e)la/-(e)n, dagoeneko, -(e)n antza izan*

Azken ekintza: Gustuko film bateko pertsonaien arteko elkarrizketa idatzi eta euskaltegiko blogera igo.

EGITEKOAK

1-Ikaskelara etorri aurretik egitekoa. Inauterietan jantziko lukeen filmeko pertsonaia aukeratu eta "mozorroaren fitxa" beteko du ikasleak. Bertan honakoak idazteko eskatzen zaio:



Mozorroaren fitxa osatzeko atalak:


1. Filmaren izenburua
2. Pertsonaiaren izena
3. Pertsonaiaren ezaugarri fisikoak
4. Zergatik aukeratu duzu?
5. Deskribatu pertsonaiaren papera filmean

2- Ikasgelan amaitu ondoren egitekoak. Entzundako hainbat molderi erreparatu ondoren, elkarrizketaren laburpena egin horietako egitura batzuk erabiliz.

1- Entzun aurretik

1.2 Nola jantziko dira Jon eta Jone?

  Jon eta Jone film ezagun bateko pertsonaiak izango dira inauterietan. Ikasleak zein film eta pertsonaia diren esan behar dute elkarrizketan aipatuko dituzten jantzietan oinarrituta.

 Ondoren, lehen entzunaldia egingo dute hipotesiak egiaztatzeko.

Zuzenketa:




Filma: Grease

Pertsonaiak:

Jon: Danny Zucco (John Travolta) / **Jone:** Sandy (Olivia Newton John)

2- Entzun bitartean

2.1 Mozorroa prestatzen

   Elkarrizketan mozorroa dela-eta hainbat argudio emango dituzte. Bigarren aldiz entzun eta galderei erantzungo diete argudio horiek erabiliz .

Zuzenketa:




Zergatik aukeratu dute filma hori? **Elkarrekin zeuden garaian bioi gustatzen zitzaielako / Ganberro ukitua duelako**

Zergatik dago Jone giroan sartuta? **Jon etxera sartu denean Jonek filmeko musika jarrita zeukalako**

Zergatik ez dira zaharregiak pertsonaia horiek izateko? Greasek ez daukalako adinik / Aktoreak eskola hartan egoteko zaharregiak ziren

Zergatik komeni zaio ileordea eramatea Joni? Bestela Bruce Willis-en antza izango duelako





2.2 Mozorro sinesgarriagoa egiten


   Ikasleek idatziko dituzte zein bi ideia gehiago izan dituzten pertsonaiak sinesgarriagoak izateko.

Zuzenketa: koreografia egitea / kabalgatako traktore baten atzean koreografiako dantza egiten irtetea

3. ENTZUN ONDOREN

3.1 Film bateko elkarrizketa

    Binaka (edo talde txikitik) gustuko film bateko pertsonaien arteko elkarrizketa sortuko dute.

 ariketan jaso dutena partekatuko dute. Ondoren, horietako film bateko zein pertsonaia izango diren hautatu eta eszena bateko elkarrizketa prestatuko dute. Beste ikaskideen aurrean egoera antzeztu ondoren, proposatu elkarrizketak euskaltegiko blogean argitaratzea.

BAKARKA EGITEKO ARIKETA

Erreparatu hizkuntzari

Segidan dituzu elkarrizketan esan dituzten hainbat molde. Zein erabiliko zenituzke entzun duzuna birkontatzeko? Egizu elkarrizketaren laburpentxo horietako batzuk erabilia.

eskerrak + EZ + -(e)n / -(e)la + Aditza

*Eskerrak ez zitzaizun mozorrotzea gustatzen! Emozionatuta ikusten zaitut
Eskerrak ez zenuela atera nahi! Orain koreografia ere egin behar al dugu?*

dagoeneko...

Nabari da dagoeneko girotzen hasi zarela

-(r)en modukoa izan

Grease ez da Dirty Dancing eta beste pastel haien modukoa

- k badu ... ukitua

Greasek badu ganberro ukitua

ezta ... -(r)ik ere

John Travolta ez da Danny Zucko tuperik gabe. Eta zuk ez daukazu ezta kopeta-ilerik ere

-rena baino,-en antza izan

Ileorderik gabe, John Travoltarena baino, Bruce Willisen antza izango duzu

behin + aditza + -(e)z gero...

behin irtenez (mozorrotuz) gero, koreografia ere egin beharko dugu

TRANSKRIPZIOA

JONE: Perfektua da...

JON: Ez dakit ba..

JONE: Benga Jon ez al zara akordatzen.. bioi gustatzen zitzaigun pelikula...

JON: Pelikula gustatu bai.. baina nola mozorrotuko gara?

JONE: Erraza da, gainera aukera ezberdinak eskaintzen ditu... nahi baduzu gero etorri etxera eta prestatuko ditugu mozorroak.

JON: Ba.. eskerrak ez zitzaizula mozorrotzea gustatzen... emozionatuta ikusten zaitut

JONE: Dibertigarria izan leike (liteke)...

JON: 13. portala (ataria).... eta ze zenbaki?

JONE: 3. A

JON: Gero arte ba

JONE: Agur...

JONE: Pasa Jon... Travolta!

JON: Joe.. ikusten dut dagoeneko girotzen ari zarela...

JONE: Jantzi batzuk atera ditut ea zer iruditzen zaizkizun...

JON: Nik ez dut ezer ekarri baina nik ez daukat problemarik...

JONE: Ba nik oraindik ez dakit zer jantzi...

JON: Nik uste azken eszenako Sandy izan behar duzula.. leggings beltz dirdiratsuak eta txupa beltza...

JONE: Ia, baina Sandy goxo eta inozentea ere gustatzen jata (zait)...

JON: Zuk ikusi...baina niretzat ez dago kolorerik...

JONE: Eta zu Danny Zucko... badituzu galtza pitillo beltzak eta larruzko txupa?

JON: Klaro...nik horiek edozein egunetan jantzen ditut

JONE: Makarra samarra zea bai...Larruzko txupa ez da izango garai bateko hura

JON: Bai, betikoa.. 20 urterekin Amsterdamen erosi nuen hura

JONE: 20 kilo pisatzen dabena (duena)?

JON: Bai baby..

JONE: Jajajajaja

JON: Ez al gara zaharregiak Dany Zucko eta Sandyz mozorrotzeko?

JONE: Zaharregiak? Greasek ez dauka adinik... Gainera, pelikula egin zenean Jhon Travolta eta Olivia Newton Jhonek jada hogeita-piko urte zituzten... helduegiak high schoolean egoteko ez?

JON: Hori ere hala da, bai...

JONE: Telebistan jartzen duten bakoitzean ikusten dut. Oso rollo ona ematen didan pelia da.

JON: Niri ere gustatzen zait... ez da Dirty Dancing eta beste pastel horien modukoa.. Grease-k badu ganberro puntua

JONE: Ba niri Dirty Dancing, eta Flash Dance, eta Footloose, El club de los Cinco eta.. buf.. asko gustatzen zaizkit...

JON: Aizu, eta ilearekin zer egingo dugu?

JONE: Beno Jhon, zuk Travoltaren itxura izateko bezala.. peluka (ileordea) jarri beharko duzu..

JON: Peluka?

JONE: Thon Travolta ez da Danny Zucko tuperik gabe.. eta zuk... ez dekozu (daukazu) ezta flekillorik (kopeta-ile) ere...

JON: Jodeerrrr, nik gaur egungo Travoltak baino ile gehiago daukat..

JONE: Ia, baina hala ere txino batera joan eta peluka erosiko dugu.. ta gomina ere bai, tupe eder bat egiteko...

JON: Hori dena beharrezkoa al da?

JONE: Pelukarik gabe Jhon Travolta baino Bruce Willis-en antza izango duzu..

JON: Ba zuk ere zerbait egin beharko duzu ze... ez zara rubia (ilehori) prezisamente...



JONE: Nik ia erosi dut pelukia.. itxoin.. gelan daukat, orain ekarriko dut..
JONE: Zer zelan?
JON: Ohhh Sandy!! Grrrr
JON: Ongi geratzen zaizkizu rizo rubio (hori) horiek...
JONE: Jajajajaja eta dantza ere entseatu beharko dugu ez?
JON: Joder Jone, eskerrak ez zenuela atera nahi... orain koreografia ere egin behar al dugu?
JONE: Beno, behin atera-ta.
JON: Ba nahi baduzu kabalgatan ere atera gintezke... traktore horietako baten atzean dantzan...
JONE Beno pasatu gabe...